



Rosi Sanchez:

Gebienak gizonak badira ere, Ermuko Jator Kiroldegian badaude karatea egiten duten emakumeak. Ekainaren 11an Donostian Hirugarren Dana lortu zuen Rosi Sanchezek. 40 urte dituen emakume honek, kurrikulum ezin hobea dauka. Karateko monitorea izateaz gain, Kumite eta Katan eskualdeko epailea da. Karatean daramatzan 14 urte hauetan zenbait lehiaketa irabazi ditu. Baina Rosi ez da Jatorren dagoen emakume bakarra, Ana Vegak Bigarren Dana dauka, eta Beatriz de Diosek eta Ana Garcia Gallegok Lehengo Dana dute.

“Karatea emakumeen kirola ere bada”

D: Zenbat denbora daramazu karatean?

R.S: 14 urte, 28 urterekin hasi nintzen.

D: Nahiko berandu hasi zinen ezta?

R.S: Bai, baina karatea egiten edozein adinetan has zaitezke ez dagoelako adin mugarik irabazteko.

D: Zer dela eta hasi zinen karatean?

R.S: Beno nik pelikula asko ikusten nituen eta beti pentsatzen nuen gizonak bakarrik ezin zutela egin, emakumeok ere egin ahal genuela karatea, eta horrela hasi nintzen, erronka gisa hartu nuen.

D: Norengana edo nor jo zenuen hasteko?

R.S: Eibarko polikiroldegian zegoen monitoreaengana joan nintzen. Hasieran umeen taldea baino ez zegoen baina gero nagusien talde bat sortu zen eta ordutik gaur egun arte karatea egiten jarraitu dut.

D: Zenbat ordu ematen dituzu entrenatzen?

R.S: Egunean bi ordu hiru aldiz astean eta azterketa daukadanean egunero bi ordu eta aste-buruetan gehiago. Egia esan, nahiko gogorak dira azterketa prestatzeko entrenamenduak.

D: Hirugarren Dana lortu berri duzu. Zer suposat du zuretzat azterketa hori gainditzeak?

R.S: Oraindik ez dut sinisten. Badakit egin dudan lan gogorraren emaitza dela, baina Julenek, nire irakasleak, asko lagundu dit eta pazientzia handia erakutsi du egunero hor egonez. Benetan asko eskertzen diot egin duen guztia.

D: Zer egin behar da Hirugarren Dana lortzeko?

R.S: Lehenengo gerriko beltza lortu behar da eta hori gogor entrenatuz lortzen da. Bestalde, Dan bakoitzarekin zenbait urte egon behar zara.

D: Zertarako erabiltzen duzu karatea?

R.S: Kirol bezala.

D: Askotan kirol hau erasokorra den jendearekin lotzen da. Errealitatea zein da?

R.S: Nire ustez akats izugarria da hori pentsatzea. Izan ere, norberaren gorputza eta burua kontrolatzen ikasten delako.

D: Nolako maila dago Ermuan karatean?

R.S: Ona, oso ona. Euskal Herriko onenen artean gaude. Hala ere, ez da emakumerik animatzen.

D: Zeintzuk dira zure proiektuak aurrerantzean?

R.S: Karatea egiten jarraituko dut eta beste Dan bat gutxienez lortzen saiatuko naiz.

Testua eta argazkiak: Alazne Aiestaran


MIGUEL Harategia



T
X
O
R
I
Z
O
A
K

O
D
O
L
O
S
T
E
A
K

Probaleku, 3
= 17 05 63
ERMUA (Bizkaia)



BAR GERALEKU

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • = 17 00 32

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak,
musika aparatoak...
prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA



1 GRPE
ERMUA

